ALHAO ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN **ALDIZKARI OFIZIALA**

2024ko abenduaren 20a, ostirala • 144 zk.

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

LANTARONGO UDALA

Udal ordenantza fiskalen aldaketaren behin betiko onespena

Udalbatzak, 2024ko urriaren 9ko osoko bilkuran, behin-behineko onespena eman zion honako hauek arautzen dituzten udal ordenantza fiskalak aldatzeari (ALHAO; 119. zk.; 2024ko urriaren 18a): ondasun higiezinen gaineko zerga; eraikuntza, instalazio eta obren gaineko zerga; jarduera ekonomikoen gaineko zerga: trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zerga, eta zerbitzu publikoen eta administrazio jardueren tasak. Erabakia jendaurrean egon zen bitartean, ez zenez haren aurkako erreklamaziorik aurkeztu, hasierako erabaki hori behin betiko erabaki bihurtu da, bat etorriz honako hauek ezarritakoarekin: Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 49 eta 70.2 artikuluak, Toki Ogasunak arautzen dituen Foru Arauaren testu bategina onesten duen Foru Gobernu Kontseiluaren irailaren 29ko 1/2021 Araugintzako Foru Dekretuaren 19. artikulua. Eta osorik argitaratzen da aipatutako ordenantza fiskalen aldaketaren testu osoa.

Administrazio bidea agortzen duen behin betiko onespenaren aurka administrazioarekiko auzi errekurtsoa aurkeztu ahal izango da Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko administrazioarekiko auzien salan, bi hilabeteko epean, iragarki hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera. Hala ere, egokitzat jotzen den beste edozein errekurtso ere aurkeztu ahal izango da.

UDAL ZERGAK ETA TASAK ARAUTZEN DITUZTEN ORDENANTZA FISKALEN ALDAKETAREN TESTU OSOA:

Ondasun higiezinen gaineko zerga arautzen duen ordenantza fiskala

Eranskina

Tarifa: Hiri ondasunak: Karga tasa: % 0,266.

Tarifa: Landa ondasunak: Karga tasa: % 0,425.

Eraikuntza, instalazio eta obren gaineko zerga arautzen duen ordenantza fiskala

Eranskina

Tarifa

Eraikuntza, instalazio edo obra mota	Karga tasa
Oin berriko obrak	% 3,50
Gainerako eraikuntza, instalazio eta obrak	% 2,18

L.G.: VI-1/1958 ISSN: 2254-8432

Jarduera ekonomikoen gaineko zerga arautzen duen ordenantza fiskala

Eranskina

Hirugarren araua:

Bat etorriz Jarduera ekonomikoen gaineko zergaren Foru Arauaren testu bategina onesten duen Foru Gobernu Kontseiluaren irailaren 29ko 3/2021 Araugintzako Foru Dekretuaren 9.2 artikuluan xedatutakoarekin, udalerri honetan egindako jarduera guztiengatik zergaren tarifako kuotak handitu egingo dira 2,00 koefizientea aplikatuz.

Trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zerga arautzen duen ordenantza fiskala

Bat etorriz Trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zergaren Foru Arauaren testu bategina onesten duen Foru Gobernu Kontseiluaren irailaren 29ko 6/2021 Foru Dekretu Arauemailea aldatzen duen abenduaren 22ko 26/2023 Foru Arauan ezarritakoarekin, 4.1.e) artikulua aldatzen da:

"Letra honetan xedatutakoaren ondorioetarako hauek hartuko dira desgaitasuna duten pertsonatzat:

a´). Ehuneko 33 eta 65 bitarteko desgaitasun gradua onartuta daukaten pertsonak, mugitzeko gaitasuna ehuneko 25 edo gehiago murriztuta daukatenak, Desgaitasunaren gradua aitortzeko, adierazteko eta kalifikatzeko prozedura ezartzen duen urriaren 18ko 888/2022 Errege Dekretuaren mugikortasun jardueren mugak ebaluatzeko azpibaremoaren arabera.

b´). Ehuneko 65eko edo gehiagoko desgaitasun gradua duten pertsonak.

Aurreko a´) eta b´) letretan aipatzen diren pertsonetatik Desgaitasunaren gradua aitortzeko, adierazteko eta kalifikatzeko prozedura ezartzen duen urriaren 18ko 888/2022 Errege Dekretuaren mugikortasun jardueren mugak ebaluatzeko azpibaremoaren arabera mugitzeko gaitasuna ehuneko 75 edo gehiago murriztuta daukatenei ez zaie aplikatuko 14 zaldi fiskaleko muga, baldin eta ibilgailua gurpil aulkiarekin erabiltzeko egokituta badago.

Aurreko 1. apartatuaren e) letraren bigarren paragrafoan arautzen den salbuespena aplikatu ahal izateko, interesdunak desgaitasuna frogatzen duen ziurtagiria aurkeztu behar du (mugitzeko gaitasuna murriztuta edukiz gero, organo eskudunak horretaz emandako ziurtagiria ere bai) eta ibilgailua zertarako erabiliko den frogatu behar dio zerga ordainarazten duen udalari, horri buruzko zerga ordenantzan ezartzen denarekin bat etorriz".

Zerbitzu publikoen eta administrazio jardueren tasak arautzen dituen ordenantza fiskala

Eranskina

A) Epigrafea: igerilekuak. Tarifa:

Igerilekura goizean edo arratsaldean sartzeagatik:

12 urtetik gorakoak: 4,50 euro.

L.G.: VI-1/1958 ISSN: 2254-8432

B) Epigrafea: kirol pistak erabiltzea.

1. Komunioiko Javier Uriarte Jairo udal kiroldegiko erabilera askotarako pabiloiko instalazioak eta gelak erabiltzeko tarifak:

a) Erabilera askotarako kirol pista:

Pilotalekua: Igerilekuetako bazkide diren erabiltzaileek, pilotalekua erabiltzeagatik, zortzi euro ordaindu beharko dituzte orduko. Zenbateko horri beste lau euro gehituko zaizkio orduko, argia piztu behar izanez gero. Erabiltzaile horiek bazkide txartela aurkeztu beharko dute pilotalekua erabili aurretik.

Gainerako erabiltzaileek, pilotalekua erabili aurretik, hamabost euro ordaindu beharko dituzte orduko. Zenbateko horri beste sei euro gehituko zaizkio orduko, argia piztu behar izanez gero.

Saskibaloia, eskubaloia, areto futbola...: Igerilekuetako bazkide diren erabiltzaileek, saskibaloi, eskubaloi, areto futbol eta abarretarako zelaia erabiltzeagatik, hamabost euro ordaindu beharko dituzte orduko. Zenbateko horri beste sei euro gehituko zaizkio orduko, argia piztu behar izanez gero. Erabiltzaile horiek bazkide txartela aurkeztu beharko dute zelaia erabili aurretik.

Gainerako erabiltzaileek, saskibaloi, eskubaloi, areto futbol eta abarretarako zelaia erabili aurretik, hogeita bost euro ordaindu beharko dituzte orduko. Zenbateko horri beste bederatzi euro gehituko zaizkio orduko, argia piztu behar izanez gero.

c) Kiroldegiko pabiloiko beheko solairuko soinketa gela: Gehienez ere hamabi erabiltzaileko talde batek erabili ahal izango du gela. Gela erabili baino lehenago, erabiltzaileek hogei euroko zenbatekoa ordaindu beharko dute orduko, guztiak edo baten bat igerilekuetako bazkideak izan ala ez. Horrez gain, eskaera egin beharko dute aretoaren erabilerarekin loturiko eta harekin bat datozen kirol jarduerak egiteko, eta udalak baimena eman beharko du. Jarduerak antolatuak izan beharko dira eta arduradun bat izan beharko dute. Jarduerak ezin dira udalak programatutakoak izan eta udalak antolatzen dituen jardueretarako erabiltzeko ordutegietatik kanpo egin beharko dira.

2. Futbol zelaia erabiltzeko tarifak: Erabiltzaileek, hala igerilekuetako bazkide direnek nola ez direnek, eta urte osoan, berrogeita hamar euro orduko ordaindu beharko dituzte futbol zelai osoa erabiltzeagatik eta hogeita bost euro orduko zelai erdi erabiltzeagatik. Zenbateko hori erabili aurretik ordaindu beharko da, eta ez dago argirik erabiltzerik.

5. Tenis eta padel pistak erabiltzeko tarifak:

5.1.- Padela: Igerilekuetako bazkide diren erabiltzaileek, padel pista erabiltzeagatik, sei euro ordaindu beharko dituzte orduko. Zenbateko horri beste bi euro gehituko zaizkio orduko, argia piztu behar izanez gero. Erabiltzaile horiek bazkide txartela aurkeztu beharko dute padel pista erabili aurretik.

Gainerako erabiltzaileek, padel pista erabili aurretik, hamar euro ordaindu beharko dituzte orduko. Zenbateko horri beste hiru euro gehituko zaizkio orduko, argia piztu behar izanez gero.

5.2. Tenisa: Igerilekuetako bazkide diren erabiltzaileek, tenis pista erabiltzeagatik, hiru euro ordaindu beharko dituzte orduko. Zenbateko horri beste bi euro gehituko zaizkio orduko, argia piztu behar izanez gero. Erabiltzaile horiek bazkide txartela aurkeztu beharko dute, tenis pista erabili aurretik.

Gainerako erabiltzaileek, tenis pista erabili aurretik, bost euro ordaindu beharko dituzte orduko. Zenbateko horri beste hiru euro gehituko zaizkio orduko, argia piztu behar izanez gero.

Komunioi, 2024ko abenduaren 12a

Alkatea
JOSÉ LUIS SALVIDEA MARTINEZ

L.G.: VI-1/1958 ISSN: 2254-8432

Firmante: CN=ARABAKO FORU ALDUNDIA / DIPUTACION FORAL DE ALAVA, SERIALNUMBER=P0100000I, OU=SELLO ELECTRONICO, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-P0100000I, O=ARABAKO FORU ALDUNDIA / DIPUTACION FORAL DE ALAVA, C=ES
Emisor del certificado: CN=EAEko HAetako langileen CA - CA personal de AAPP vascas (2), OU=AZZ Ziurtagiri publikoa - Certificado publico SCA, O=IZENPE S.A., C=ES
Número de serie: 267116
Fecha de firma: 2024.12.20 07:12:10 Z